

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ ZINEA

'El regreso de Mary Poppins', gaur berrito

Gaur ere jarriko dute *El regreso de Mary Poppins* pelikula, Biterin, bi saiotan; 16:30etan eta 19:30etan. Datozen egunean, beste hiru saio izango dira: abenduaren 4an (22:15), 6an (19:30) eta 7an (16:30). Adin guztietako ikusleei zuzendutako pelikula da, 130 minutukoa. ■

■ ESKU PELOTA

Eguberri Txapelketa, azken txanpan gaur

Final laurdenak jokatuko dituzte benjamin eta alebinek, eta finalaren joanekoa seniorrek, 15:00etan hasita kiroldegiko frontoian.

BIGARREN jardunaldia izango du gaur Hernaniko Eguberri Txapelketa, kiroldegiko frontoian, arratsaldeko 15:00etan hasita. Eta fase erabakigarrian sartu da dagoeneko.

Gaztetxoek, benjamin eta alebin mailetakoe, final laurdenak jokatuko dituzte. Guztira 16 pelotari sailkatu ziren aurreko asteburuan, eta 20 partidu jokatuko dituzte, semifinalletara sailkatzeko.

Senior mailakoe, berriz, finalarekin daukate zita gaurkoan; baina finalaren joanekoa izango da. Lau hernaniar ariko dira lehian: Salaberria eta Insausti, Arizmendi eta Altunaren kontra. Eta datorren asteburuan, bikoteak aldatuko dituzte, finalaren bueltakoa jo-

katzeko. Hori horrela, bi partiduen artean tanto gehien pilotzen dituzten bi pelotariek jantziko dituzte txapelak.

Lau hernaniar elkarren kontra Iruran, trinketeko semifinalen bila

Baina frontoian bakarrik ez, trinketeen ere zita garrantzitsuak daukate hernaniarrek. Gipuzkoako Txapelketa ari dira jokatzeko, eta gaur, final laurdenak jokatuko dituzte lau kadete hernaniarrek... elkarren kontra. Iruran izango da, eta 11:00etan hasita, Xabier Apaolaza Anartz Oiartzabalaren kontra ariko da; eta 12:00etan Jon Jara, Unax Uitziren kontra. Irabazten dutenek, semifinalletara pasea lortuko dute. ■



Aurreko asteburuan hasi zen, Hernaniko Eguberri Txapelketa.

■ KALERA KALERA

Martuteneko espexera martxa, gaur goizean

Kalera Kalera dinamikak antolatuta, Martuteneko espexera martxa egingo dute gaur, Bada garaia, presoak kalera lelopean. Goizeko 10:30etan abiatuko da adar bat Hernanitik, Zinkoena-tik; eta 11:00etan beste bat Donostiatik. 12:00etan iritsiko dira espexe aurrera, eta ekitaldia egingo dute. Arkaitz Rodriguezek, Sortuko idazkari nagusiak, hartuko du hitza. ■

■ UDALA

Urte Zaharreko pirotekniari buruz, hiru arau

Urte Zaharrean piroteknia erabiltzeak segurtasun arazoak sortzen dituela eta, hiru arau ezarri ditu Udalak, arriskuak murrizteko: soilik 00:00etatik 00:15etara erabili ahal izango da piroteknia; Kaxkoan debekatuta dago bere erabilera, etxe askoren egitura egurrezkoa baita, eta sua sortu eta zabaltzeko arriskua handia; eta Kaxkotik kanpo, eremu irekietan soilik erabili daiteke. ■

■ OHITURA ZAHARRAK ABESBATZA

«Urtea kantu, koplak eta bertsoz agurtzeko», errondarekin bat egiteko gonbitea

Urte Zaharreko Erronda egingo dute bihar, udaletxeko arkupeetatik abiatuta, 17:00etan.

ATE joka dago urte berria, baina iritsi baino lehen, bukatze-ara dijoana ondo agurtu nahi dute, Hernaniko Ohitura Zaharrak abesbatzako kideek. Eta horretarako, urteroko zitari hutsik egin gabe, Urte Zaharreko Erronda antolatu dute bihar arratsaldean.

Udaletxeko arkupeetan jarri dute elkartzeko hitzordua, arra-

tsaldeko 17:00etan, «trikitixaren doinupean» abiatzeko bertatik; eta azaltzera animatu dituzte herritar guztiak: «ohiturari jarraituz, Urte Zaharreko Erronda antolatu dugu, eta herriko alde zaharreko kaleetatik barrena, urteari kantu, koplak eta bertsoz agur esateko asmoz, gurekin bat egitera gonbidatu nahi zaitugu». ■



Trikitilarien laguntzaz ibiliko dira Kaxkoan, errondakoak.

■ KIROLDEGIA

Bihar eta etzi, kiroldegia itxita

Egun osoan itxita egongo da Hernaniko kiroldegia, bihar eta etzi, Urte Zahar eta Urte Berri Egunak direla eta. ■

■ ODOL EMAILEAK

Hurrengo zita, urtarrilaren 8an

Urteko aurreneko asteartea Urte Berri Eguna denez, urtarrilaren 8a izango da odol emateko eguna, Hernaniko ambulatorioan. Ohiko ordutegian egingo dute urteko aurrenekoa ere, 18:00etatik 20:30etara. ■

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?

Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

Zentrala Latsunbe 7, Hernani

Hernani ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

Zerbitzu partikularrak eta seguru etsoskin
• Berezikiak
• Erransketak
• Lekualdatzekak
• Eskelak, koruak...

Adarraga

ADARRAGA

Konfitegia
Pasteldegia

Urbietan Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10

Aitor Ruiz de Eguino

OPARI ARTISTIKOAK
ESKULTURA, PINTURA, ZERAMIKA

Santa Barbara 58, Hernani
www.aitorruizdeegino.com
685 76 82 45

Zorionak Inge Caloca Ameztoy!

8urte

☎ TAXIAK: 943 550093 | UDALTAINGOA: 943 248900 | DYA: 943 464622 | AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 | JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103 ☎ / Egunez: Odriozola URNIETA Idiazabal, 18 943 334014 / Gauzez: Castilla Urbietan, 7 (Hernani) 943 552941

EGURALDIA **GAUR** Oskarbi egongo da zerua. Goizean goiz lainoa sortuko da, baina azkar desagertuko da. Ekialdeko eta ipar-ekialdeko haizea ibiliko da, oso ahul. **Min.4° / Max.12°**

BIHAR Eguraldi lasaia izango dugu bihar ere. Tarteka laino batzuk agertuko dira zeruan, baina ateri eutsiko dio. Haizea ekialdetik eta ipar-ekialdetik sartuko da berriro. **Min.4° / Max.12°**

(euskaime)

INAUTERIAK 2019

Uxue Bereziartuak eta Aitor Altunak egindako kartela, bozkatuena

Bi hernaniarren proposamena izango da, datorren urteko Inauterietako kartela.

DAGOENENOK aukeratu dute hernaniarren, zein izango den 2019ko Inauteriak iragartzeko kartela. Aitor Altuna Etxabek eta Uxue Bereziartua Lonbidek diseinatutako proposamenak jaso ditu boto gehien, aurreko asteotan egin den bozketan, eta beraiek eskuratuko dute 600 euroko saria.

Lau proposamen zeuden aukeran, eta 888 hernaniarren eman dute bere botoa. Horietatik, 393 boto jaso ditu Altuna eta Bereziartuaren proposamenak, baina estua izan da bozketan. Izan ere, alde txikiarekin irabazi dute: bigarren bozkatuenak, emakume bat hiru kapelarekin irudikatzen zuenak, 374 boto lortu ditu, soilik 19 gutxiago. Gainerako bi proposamenek, 104 eta 17 boto jaso dituzte.

Jakinarazi dutenez, botoen %80a internet bidez eman dute hernaniarren, eta beste %20a Biteri kultur etxean. ||



Uxue Bereziartuak eta Aitor Altunak diseinatutako kartela.

MOTOZIKLISMOA



Urko Garmendia (goran erdian) eta Egoitz Peñagarikano (erdiko ilaran eskuinetik bigarrena), saritu guztiekin.

Urko Garmendiak eta Egoitz Peñagarikano, txapeldunaren saria

Aurreko larunbatean, abenduaren 22an, banatu zituen 2018 urteko sariak, Euskadiko Motoziklismo Federazioak. Durangon egin zuten ekitaldia, eta sarituen artean izan ziren bi hernaniar, Euskadiko txapeldun izan baitira aurreko, enduron, bakoitza kategoría batean: 23 urtez azpikoetan lortu du garaipena Urko Garmendiak, eta beteranoetan nagusitu da Egoitz Peñagarikano. ||

WUKROREN ALDEKO SAN SILBESTREA

Beste behin, urteari agur Wukroren alde korrika

Wukroren aldeko San Silbestrea egingo dute bihar, arratsaldeko 17:30etatik aurrera, adin guztietakoek. Izenemateak, gaur arte interneten.

GERO eta gehiago dira, urtea korrika agurtzen dutenak; eta Hernanin ere, ohitura horri eutsiko diote bihar, Wukroren aldeko San Silbestre lasterketaren seigarren edizioarekin. Arratsaldeko 17:30etan hasiko dira gaztetxoek probak, eta 18:00etan izango da lasterketa nagusia, helduena.

8 urte bitartekoak abiatuko dira aurrena, eta 300 metroko ibilbidea osatuko dute. Gero, 17:45etan, 9-13 urtekoek hartuko dute txanda, 800 metroko zirkuitua osatzeko. Eta bukatzeko, 14 urtetik gorakoek, 4 kilometroko ibilbidea egingo dute, Plazatik abiatu eta Hernaniko kaleetan barrena, Kale Nagusitik gora berriro Plazan bukatzeko. «Lasterketa herrikoia da, eta askorik entrenatu gabe, edonork erraz egiteko moduko ibilbide motza dauka. Beraz, oraindik parte hartzeko zalantzan zaudeten

horiek, apuntatzeko urratsa ematera animatu nahi zaituztegu», adierazi dute probaren antolatzaileek.

Izenemateak, interneten gaur edo Plazan bihar

Izenemate epea, gaur arratsaldeko 18:00etan bukatuko da internet bidez, www.kirolprobak.com webgunean, 8 euroan. Bihar, berriro, Plazan izango da aukera, probaren aurretik, 11 euroan. Korrikalari guztiek jasoko dute poltsa bana, lasterketako opariekin. Eta proba bakoitzeko aurreneko hiru sailkatuek, saria jasoko dute; baita mozzorro onenak ere!

Antolatzaileek gogorarazi dute, hiru helburu dituela lasterketak: herritarrei Wukroko errealitatea ezagutaraztea, Wukrorako laguntza ekonomikoa biltzea, eta herritarrentzat urtea amaitzeko lasterketa eta festa bat izatea. ||

AZOKA

Liburu eta disko azoka, urtea agurtzeko

Joan den urtean bezala, Urte Zahar Egunean jarriko dute Gabonetako disko eta liburu azoka, Plaza Berrin, goizeko 10:30etatik 14:00etara. Egoera onean dauden 1.000 liburu, disko eta CD baino gehiago egongo dira eskuragarri; eta material bilketa ere egingo dute: nahi duenak, eman ditzake erabiltzen ez dituen liburu, musika CD eta binilozko diskoak. Norbaitek materiala eman nahi badu, baina ezin badu bihar gerturatu, emailaz idatzi dezake, beraiekin harremanetan jartzeko: azokasolidario@gmail.com. Gainera, www.azokasolidario.eus webgunean daukate, ekintza guztiei buruzko informazioa. ||

PORTU AUZOA

Santa Barbarara mendi buelta, bihar

Gabonetako egitarauaren barruan, biharko jarri du bigarren zita, Portuko Auzo Elkartek. Mendi buelta egingo dute Santa Barbarara, urte bukaera ospatzeko. Goizeko 10:30etan abiatuko dira plazatik. Asteazkenean, berriro, umeentzako pelikula jarriko dute, arratsaldeko 17:30etan hasita. Eta ostegunean, azkenik, erroskilla tailerra egingo dute, 16:30etatik aurrera; eta bukaeran, merendola ere bai. ||

IRAGARKI MERKEAK

Pertsona bat behar da adineko bat zaintzeko, titulazioarekin. Kontratua eta gizarte segurantzarekin. Deitu: 649 887 976

LOGIKALINE enpresak BOST TELEOPERADORA LANPOSTU bete behar ditu. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)